

## HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

**Espedientea:** DNCG\_LEY\_59636/21\_84

**Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen Aurreproiektuaren** berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan maiatzaren 18an Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzietatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

### a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

*“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behineko onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”*

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena maiatzaren 10ekoa da eta maiatzaren 13koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

*“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko*



*dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”*

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

Xedapenaren edukiari dagokionez, arautzen diren gaien artean badaude hizkuntzaren erabilerarekin lotura duten hainbat.

Ziur gaude horietan guztietan beteko dela hizkuntza legedian ezarritakoa; besteak beste, 10.artikuluaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egin beharreko txosten, proposamen eta gainerakoetan eta, 11. artikuluan arabera eLankidetzari dagozkion eginkizunetan.

Halaber, ziur gaude 24.artikuluan adierazitako jardueretan eta materialen zabalkuntzan ere beteko dela hizkuntza legedian eta Eusko Jaurlaritzak onartutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetan euskararen erabileraren normalizazioari begira ezarritakoa.

#### b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Aztertutako Lege aurreproiektuaren xedea, euskal administrazio publikoek lankidetzaren eta elkartasun-gaietan dituzten politiken araubide juridikoa finkatzea eta arautzea da.

Testuaren 6.artikuluak lankidetzarako eta elkartasunerako oinarri diren printzipioen artean, ekitatea ezartzen du lankidetzaren jardueren oinarri bezala. Ekitate hori osatzen duten faktoreen artean hizkuntza- eta kultura-identitatea daude. Egokia deritzogu lankidetzaren jardueraren arautzen duten printzipioen artean hizkuntzagatiko diskriminazio eza kontuan hartzea.

Are gehiago, euskal gizarteak euskara biziberritzeko prozesuaren bidez lortutako ezagutza du, eta hori oso baliagarria izan daiteke Hegoaldeko herrietako hizkuntza komunitate minorizatuarekin partekatze jardueraren bereizgarri gisa. Horrela, euskara eta euskal kultura biziberritzeko prozesuaren elkartrukean oinarritutako lankidetzaren proiektuak garatzeko aukera aurkezten zaigu, baita euskara eta euskal kultura sustatzen lan egiten duten erakundeek beren esperientzia partekatze ere. Gure ustez, zioen azalpenean, I. atalean, aipatutakoa txertatzeko aukera azter liteke.

Bestalde, 13.artikuluko 3.azpiatalean Lankidetzarako eta Elkartasunetako Euskal Kontseiluaren osaerari buruz hurrengo ezartzen da:

*3.- Kontseiluaren osaera parekidea da erakunde- eta gizarte-ordezkariei dagokienez, eta emakumeen eta gizonen osaera orekatua errespetatzen du, beti.*

Hizkuntzaren normalizazioa zein genero berdintasuna biak Eusko Jaurlaritzako politika publikoetako zeharkako gaiak kasu honetan, kontseiluaren osarari dagokionez ikusten dugu, eta egokia iruditzen zaigu, genero berdintasunaren aldagaia kontuan hartzen dela; aldiz, hizkuntza normalizazioari buruzko aurreikuspenik ez da jasotzen.

Kontseiluko kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein gainerako kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorren bermatzeko eta administrazioak zaindu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea 20. artikuluko horretan:

*Kontseiluko hautazko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea.*

Halaber, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegitik gomendagarria izango litzateke beste testu hau ere jasotzea:

*Kontseiluko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Kontseiluak horrela erabakitzen bada bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.*

Ildo beretik, 15. artikuluan, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordeari buruzkoa, izendapenentarako ez dira euskararen normalizazioa zein genero berdintasuna aldagaiak aurreikusten. Arestian Lankidetzarako eta Elkartasunetako Euskal Kontseilurako proposatu dugun gauza bera proposatzen dugu Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordearentzako.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos  
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeako zuzendaria